



NEWSLETTERRA - 2026ko UZTAILA



# Udal Aukerak

## Zure udalerrirako aukerak

Deialdiak, dirulaguntzak eta finantzazio-aukerak biltzen dituen hileroko buletina, euskal toki-erakundeentzat



### Hileko nabarmenena

Autokontsumorako eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko energia elektrikoa sortzeko laguntzak  
(Energiaren Euskal Erakundea-Eusko Jaurlaritza)  
Aurrekontua: 80.000.000 €



### Laster ixtekoa

**Ikastetxeen elkarteak**  
(Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa)  
Epe-amaiera: 2026/07/03  
**Mentor Gela 2026**  
(Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa)  
Epe-amaiera: 2026/07/04  
**Lurralde-proiektu turistikoak**  
(Eusko Jaurlaritza)  
Epe-amaiera: 2026/07/06

### EB

LIFE programaren deialdia  
Europako trantsizio berdea sustatzeko proiektuak finantzatzen ditu, arlo hauetan jarduerak eginez: natura eta biodibertsitatea, ekonomia zirkularra, bizi-kalitatea, klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea, eta energia garbia lortzeko trantsizioa.  
601,500,000 €-raino

## Newsleterraren aurkibidea

Zenbaki honek Udal Aukerak zerbitzuaren deialdi aktibo nagusiak, Europako aukerak eta gomendio teknikoak jasotzen ditu. Nabigatu ataletan zehar zure udalerriari gehien egokitzen zaiona aurkitzeko.



### Hileko nabarmenena

Aldi honetan zuzkidura handiena eta eragin handiena izan duen deialdi garrantzitsuena.



### Aukerak, premiazkoak eta hurbilekoak

Berehalako epeak dituzten deialdiak eta datozen asteetan irekiko diren teaserrak.



### Gomendio teknikoa

Udal Aukerak lantaldearen berariazko aholkua, eskaeretan arrakasta-tasa hobetzeko.



### Tokiko joerak

Udal Aukerak-en begirada teknikoa, Euskadiko udalerriak erronka demografikoari nola heltzen ari diren azaltzeko.



### Deialdiak

Fitxa osoak, erakunde, epe, aurrekontu eta hartzaileekin, izapideak errazteko.



### Zerbitzua eta kontaktua

Udal Aukerak-en newsleterrari, deialdien bildumari eta baliabideei buruzko kontsultak egiteko, harremanetan jar zaitezke zerbitzuko taldearekin.



HILEKO DEIALDI NABARMENENA

## Autokontsumorako eta kontsumo termikoen elektrifikaziorako elektrizitate-sorkuntza (EEE 2026)

Energiaren Euskal Erakundeak (Eusko Jaurlaritzak) toki-erakundeentzako zuzkidura handieneko deialdietako bat argitaratu du. Udal-instalazioetan elektrizitate berriztagarria sortzeko, autokontsumorako eta elektrifikazio termikorako jarduketak finantzatzen ditu.

**80 M€**

Zuzkidura guztira

Energia berriztagarrien proiektuetarako laguntza-programa

**% 50era arte**

Laguntzaren intentsitatea

Diruz lagundu daitekeen kostuaren gaineko gehieneko finantzazio-ehunekoa

**Irailak 30**

Eskaera egiteko epea

2026ko irailaren 30era arte edo agortu arte



**Gomendatutako ekintza:** Kotsultatu fitxa osoa [Deialdiak](#) atalean edo [Udal Aukerak](#) atarian, eta baloratu udal eraikin eta instalazioetan autokontsumorako eta elektrifikaziorako proiektuak.



## AUKERAK



Galdu behar ez dituzun bi aukera

### Lurralde-proiektu turistikoak

(Eusko Jaurlaritza)

Dirulaguntza honen xedea da Euskadiko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoak babestea eta jarduera turistikoa dinamizatzen, eskaintza antolatzen eta fluxu turistiko berriak sortzen laguntzea, 2026ko ekitaldian.

- **Aurrekontua:** 1,840.000 €
- **Epea:** 2026/07/06
- **Hartzaileak:** Turismoa sustatzeko ardura duten EAEko erakunde publikoak, Turismo Bulegoen Euskal Sarean integratutako turismo-bulegoak edo turismo-guneen titular diren toki-erakundeak, eta eskualdeko edo eskualdez gaindiko turismo-lankidetzarako erakundeak.

### LIFE 2026 proposamenen deialdiak

(EB)

LIFE 2026 Programak Europako trantsizio berdea bultzatzera bideratutako proiektuak finantzatzen ditu, natura eta biodibertsitatea, ekonomia zirkularra, bizi-kalitatea, klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea eta energia garbi baterako trantsizioa bezalako jardueren bidez.

- **Aurrekontua:** 601.500.000 €
- **Epea:** Proiektuaren tipologiaren arabera, 2026/09/03tik 2027/03/04ra.
- **Hartzaileak:** Udalak eta toki-erakundeak.



## ADI! LASER ITXIKO DIREN EPEAK



### Premiazko deialdiak – ekin orain

Hurrengo deialdiak datozen egunetan amaituko dira. Zure udalerrriak baldintzak betetzen baditu, kontsultatu informazio-fitxa eta planifikatu aurkezpena epearen barruan.

#### → ● 2 egun barru itxiko da – Ikastetxeen elkarteak (Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa)

Laguntza hauen helburua da ikastetxe publikoen arteko proiektu komunak sustatzea, 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan jasangarritasuna, herritartasun globala, inklusioa, osasuna eta STEAM ikuspegiak lantzeko.

Epea : 2026/07/03

#### → ● 5 egun barru itxiko da – Lurralde-proiektu turistikoak (Eusko Jaurlaritza)

Dirulaguntza honen xedea da Euskadiko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoak babestea, 2026ko ekitaldirako fluxu turistiko berriak dinamizatuz, banatuz eta sortuz.

Epea : 2026/07/06

#### → ● 3 egun barru itxiko da – Mentor Gela 2026 (Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa)

Lurraldeko toki-erakundeen eta tokiko lurralde-erakundeen mendeko erakunde publikoen Mentor Gela mantentzeko laguntzak, helduentzako prestakuntza irekia, malgua eta Internet bidezkoa bultzatuko duten prestakuntza-, hedapen- eta sustapen-ekintza zehatzak sustatzeko.

Epea : 2026/07/04



ADI! LASTER



## Hurrengo deialdiak

Hurrengo deialdien jarraipena egiten ari gara, toki-erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeelakoan. Oraindik funtsezko informazioa osatu gabe dagoen arren, komeni da aldez aurretik ezagutzea, udalera zenbateraino egokitzen den baloratzeko eta, hala badagokio, parte-hartzea prestatzeko.

### → ● Epearen zain – Tokiko edo eskualdeko komunikazio-proiektuak euskaraz (Arabako Foru Aldundia)

Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskarazko tokiko edo eskualdeko komunikazio-proiektuak finkatzeko, garatzeko eta normalizatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia.

Argitalpena: ALHAO 69. zk. · 2026/06/17 Erreferentzia:

BOTHA-2026-69 1771

Aurrekontua: 322.504 €

Egoera: Eskerak aurkezteko epea argitaratzeko dago.



## GOMENDIO TEKNIKOA

Hileko gomendioa: LIFE n, baloratu bakarrik ez joatea

Zure udalerriak Europako proiektuak aurkezteko gaitasun nahikoa ba al du?

LIFE deialdiek aukera ematen dute inpaktu handiko ingurumen, klima eta energia erronkei aurre egiteko, baina proiektu teknikoki sendoak behar izaten dituzte, ondo dimentsionatuak eta gauzatzeko, segimendua egiteko eta transferitzeko gaitasuna dutenak.

### 1 Gaitasun teknikoak gehitu

Partzuergo batek aukera ematen du ingurumen, energia, lege, teknologia edo kudeaketa esperientzia duten bazkideak sartzeko, proposamenaren kalitatea indartuz.

### 2 Baliabideak eta erantzukizunak partekatu

Lankidetzak administrazio lanak, kostuak eta kargak banatzen laguntzen du, batez ere proiektu konplexuetan edo iraupen luzeko proiektuetan.

### 3 Inpaktua eta erreplikagarritasuna handitu

Sareko proiektuek edo udalaz gaindikoek lurralde-irismen handiagoa, transferentzia-ahalmen handiagoa eta beste udalerri batzuentzako erabilgarritasun handiagoa erakuts dezakete.



## Gure gomendioa

LIFE deialdi bat bere konplexutasunagatik baztertu aurretik, baloratu zure udalerriak beste udal, garapen-agentzia, zentro teknologiko, unibertsitate, gizarte-erakunde edo enpresa espezializatuekin batera parte har dezakeen.

Askotan, bakarrik ez joatea proposamen bideragarriagoa, sendoagoa eta lehiakorragoa eraikitze gako izan daiteke.



## TOKIKO JOERAK

# Hiru udal-palanka erronka demografikoaren aurrean

Euskadiko toki-erakundeek aurkeztutako proiektuen lurralde-argazkia egin ondoren, hilabete honetan indar handienarekin errepikatzen diren irtenbideetan jarriko dugu arreta. Hiru palanka nagusietatik ari dira udalerriak erronka demografikoari heltzen: etxebizitza, zaintza eta tokiko aktibazioa.

**Etxebizitza eta errotzea**  
**Zainketak eta**  
**gertutasunezko**  
**zerbitzuak**  
**Aktibazio ekonomikoa**  
**eta komunitarioa**

- Eraikinak birgaitzea, alokairu soziala, gazteentzako etxebizitza eta biztanleria finkatzeko estrategiak.
- Eguneko zentroak, belaunaldien arteko espazioak, adinekoentzako arreta eta zerbitzu komunitario berriak.
- Tokiko merkataritza, coworking-a, kultura, turismoa, elikadura burujabetza eta udal-espazioak berreskuratzea.



Joerak erakusten du proiektu sendoenek inbertsio fisikoa, zerbitzuak ematea eta komunitate-dinamizazioa konbinatzen dituztela. Kontua ez da soilik eraikitzea edo birgaitzea, baizik eta udalerrian geratzeko, bizitzeko eta parte hartzeko baldintza errealak sortzea.



DEIALDIAK



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EUSKADI



## Euskadiko liburutegietarako funts bibliografikoak sortu edo/eta berritzeko dirulaguntzen deialdia

### Deskribapena

Agindu honen bidez, Euskadiko liburutegietako Funts bibliografikoak berritu edo/eta handitzeko dirulaguntzak emateko 2026ko ekitaldirako deialdia egiten da.

### Hartzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, liburutegi publikoen titular direnek, toki-erakundeek, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal liburutegi publikoen arloan eginkizunak esleituta dituzten udal erakundeek ere agindu honetako laguntzak eskatu ahal izango dituzte, baldin eta haien liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak badira. Gainera, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak izanik toki-erakundeek kudeatzen ez dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko beste liburutegi batzuek ere jaso ahal izango dituzte laguntzak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien titular diren eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak ez diren pertsona juridiko pribatuek ere jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta artikuluko 4.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Funtsezko datuak

**Erakundea:** Kultura eta Hizkuntza Politika Saila  
– EUSKO JAURLARITZA

**Epea :** 2026/07/30

**Aurrekontua:** 1.000.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BIZKAIA](#)

## Bizkaiko udalek 2026ko ekitaldian kultur jarduerak egitea

### Deskribapena

Foru dekretu honen arabera, dirulaguntza jaso ahal izango dute 6.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalek egindako kultur jarduerak, baldin eta kultur sustapen eta zabalkundearekin zerikusi zuzena badute.

### Hartzaileak

Foru dekretu honen onuradun izan daitezke, 6.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalerritako udalak eta haien udal erakunde autonomoak.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Euskara, Kultura eta Kirol Saila  
– BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**Epea :** 2026/09/30

**Aurrekontua:** 350.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BOE](#)

## Nazioarteko lehiaketekin lotutako kirol-azpiegituretan obrak egiteko toki-korporazioei laguntzak 2026an

### Deskribapena

2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako kirol-azpiegituretako obrak finantzatzea, betiere obra horien ondoren nazioarteko lehiaketak egiten badira 2026an edo ondorengo urteetan.

### Hartzaileak

2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean kirol-azpiegituretan obrak egiten dituzten edo egin dituzten toki-korporazioentzat da dirulaguntza, betiere obra horiek 2026an edo hurrengoetan nazioarteko lehiaketetarako obrak egin ondoren egiten badira.

**Funtsezko datuak**

**Erakundea:** Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta  
Kirol MINISTERIOA

**Epea :** 2026/07/08

**Aurrekontua:** 555.160 €



 **DEIALDIAREN FITXA IKUSI**

**BIZKAIA**

## Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak

### Deskribapena

Foru dekretu honen bidez, erregulatu nahi dira 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako emango zaizkien laguntzak.

### Hartzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriak eta mankomunitateak eskuratu ahal izango dituzte dekretu honetan jasotako dirulaguntzak.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila – BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**Epea :** 2026/09/30

**Aurrekontua:** 251.135 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

ARABA

## Nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko 20.000 biztanletik beherako udalei eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei zuzendutako laguntzen deialdia

### Deskribapena

Deialdi honen xedea da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 20.000 biztanletik beherako udalei eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea. Norgehiagoka bidez ematen diren laguntza horiek nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko sostengu- eta zaintza-ekosistemak eraikitzen lagunduko dute 2026ko ekitaldian.

### Hartzaileak

20.000 biztanletik beherako udalak eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak

### Funtsezko datuak

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea –  
ARABAKO FORU ALDUNDIA**

**Epea : 2026/07/16**

**Aurrekontua: 100.000 €**



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EB



## LIFE 2026 proposamenen deialdiak

### Deskribapena

LIFE 2026 programak Europako trantsizio berdea bultzatzeko proiektuak finantzatzen ditu. Deialdiek proiektu pilotuak eta frogapen-proiektuak nahiz jarduera estrategikoak, integratuak, gobernantzakoak, laguntza teknikokoak eta koordinaziokoak babesten dituzte, eta interes berezia dute konponbide errepikagarri, eskalagarri eta lerrokatuetan, Europar Batasunaren ingurumen-, klima- eta energia-lehentasunekin bat datozenetan.

### Hartzaileak

Udalak eta toki-erakundeak.

Eskumena duten erakunde publikoak, entitate publikoak eta administrazioak.

Erakunde pribatuak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta nortasun juridikoa duten beste eragile batzuk.

Europar Batasuneko zenbait erakunde edo LIFE programari atxikitako zenbait herrialdek osatutako partzuergoak.

Oharra: Toki-erakundeek onuradun koordinatzaile gisa edo proiektu-bazkide gisa parte har dezakete, deialdiaren ildoaren eta jardunaren irismenaren arabera.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** : European Climate, Infrastructure and Environment Executive Agency –  
**EUROPAKO BATZORDEA**

**Epea:** Proiektuaren tipologiaren arabera,  
2026/09/03tik 2027/03/04ra.

**Aurrekontua:** 601.500.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

ARABA

## Udalek eta kuadrillek euskararen erabilera sustatzeko eta sozializatzeko programak egiteko dirulaguntzen deialdia

### Deskribapena

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza sailak proposatu du udalei eta kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea, 2026ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak egin ditzaten.

### Hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko udalak eta kuadrillak, Vitoria-Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik. Kuadrillak 4.2 klausulako a) lerroan baino ezingo dira onuradun izan. 4.2 klausulako d) lerroan Trebiñuko enklabeko udalak baino ezingo dira onuradun izan.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila – ARABAKO FORU ALDUNDIA

**Epea :** 2026/07/07

**Aurrekontua:** 190.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

GIPUZKOA

## Gipuzkoa Taldean - Gazteen ongizate emozionala sustatzeko proiektuak programaren 2026rako dirulaguntzak

### Deskribapena

Laguntzen helburua da prebentzio unibertsaleko proiektuak bultzatzea Gipuzkoako gazteei zuzenduta, bereziki 12 eta 17 urte bitartekoei, babes-faktoreak indartzeko eta haien ongizate emozionalari eragin diezaioketen arrisku-aldagaiak murrizteko.

### Hartzaileak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte udalek, toki-entitate txikiek, mankomunitateek, unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, ikastetxeek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, garapen-agentziek edo beste administrazio batzuek.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Estrategia Zuzendaritza Nagusia – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**Epea :** 2026/07/06

**Aurrekontua:** 300.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BOE](#)

## Ikastetxeen elkarteak sustatzeko laguntzetarako deialdia

### Deskribapena

2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan, ikastetxe publikoen elkarteak sustatzera bideratutako norgehiagoka-araubideko laguntzen deialdia egin da, proiektu komunak abian jartzeko eta honako alderdiak laguntzeko: jasangarritasun eta herritartasun globala, hezkuntza inklusiboa eta osasunerako hezkuntza, eta, era berean, zientzia, teknologia, ingeniariaritzak, arteak eta matematika integratzeko ikuspegi pedagogikoak sustatzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.

### Hartzaileak

Laguntzak titulartasun publikoko ikastetxeei zuzenduta daude, baita lurralde nazionalen kokatutako hezkuntza bereziko ikastetxeei ere, baldin eta honako irakaskuntza hauetakoren bat ematen badute: haur-hezkuntza, oinarrizko hezkuntza, derrigorrezkoaren ondorengo bigarren hezkuntza, helduen hezkuntza eta araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntza.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kiroi MINISTERIOA

**Epea :** 2026/07/03

**Aurrekontua:** 2.250.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[EUSKADI](#)

## Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak

### Deskribapena

Dirulaguntza honen xedea da Euskadiko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoak babestea, 2026ko ekitaldirako fluxu turistiko berriak dinamizatuz, banatuz eta sortuz.

### Hartzaileak

EAEko hiriburuen turismo-sustapenaren arduradun diren euskal erakunde publikoak, baita eskualdeko turismo-lankidetzako erakundeetako kide ez diren udalerriak ere, baldin eta erakunde horiek ez badira existitzen edo ez badira eratu beren esparru geografikoan, baldin eta toki-erakunde horiek turismo-bulegoen edo informazio-puntu turistikoen titularrak badira, Itourbask-Euskadiko Turismo Bulegoen sarekoak badira eta, betiere, urte guztian irekita badaude.

EAEn kokatutako erakunde publiko edo pribatuak, baldin eta bertako eskualde-eremuan edo eskualdez gaindi garatzen badituzte jarduerak, turismo-lankidetzako erakunde gisa edo turismo-produktuak kudeatzen dituzten erakunde gisa.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila – EUSKO JAURLARITZA

**Epea :** 2026/07/06

**Aurrekontua:** 1.840.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BOE](#)

## Mentor Gelen bidez prestakuntza-gela irekiak, malguak eta urrunekoak mantentzeko laguntzen

### 2026ko deialdia

#### Deskribapena

Lurraldeko toki-erakundeen eta haren mendeko erakunde publikoen mendeko Mentor Gela mantentzeko laguntzak, helduentzako prestakuntza irekia, malgua eta Internet bidezkoa bultzatuko duten prestakuntza-, hedapen- eta sustapen-ekintza zehatzak sustatzeko.

#### Hartzaileak

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren toki-erakundeak, bai eta udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeak ere, autonomia-erkidegoek eratuak edo aitortuak, eta lurralde-mailako toki-erakundeen mendeko erakunde publikoak. Gainera:

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta edukitzea Mentor Gela programa garatzeko laguntzailea dela egiaztatzen duen hitzarmena. Hirugarren klausulan aipatzen diren konpromiso ekonomikoak beteta izatea. 2026ko apirilaren 30ean Mentore Gela aktibo bat izatea, eta 2025eko apirilaren 1etik 2026ko apirilaren 30era bitarteko aldian Mentor Gela Programaren Katalogo Ofizialeko ikastaroetan matrikulatutako ikasleak izatea, gutxienez sei hilabetez. Aurretiazko deialdietan jasotako dirulaguntzak justifikatu izana.

#### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol MINISTERIOA

**Epea :** 2026/07/04

**Aurrekontua:** 600.750 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

BIZKAIA

## Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletan landa-bideak hobetzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak

### Deskribapena

Onartu egin dira Natura Ingurune eta Nekazaritza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletan landa-bideak hobetzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia eta laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta eranskina ere.

### Hartzaileak

Foru-dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, baldin eta kategoria jakin batzuetan sartuta badaude, egindako landa-ingurunearen karakterizazioaren arabera (<https://www.euskadi.eus/euskadiko-landa-eremuen-karakterizazioa/web01-a2lanits/eu/>) Landa Ingurunearen Garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legean eta 2023-2027 NPEPE-a ezartzeko 66/2024 Dekretuan oinarrituta, eta foru-dekretu honen eranskin bakarrean zerrendatzen badira. «Landa-habitat sakabanatua duten udalerrien» kasuan, 450 biztanle kilometro koadroko baino biztanle-dentsitate txikiagoa izan beharko dute.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Ingurune Naturala eta Nekazaritza  
Sustatzeko Saila-BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**Epea :** 2026/07/30

**Aurrekontua:** 5.040.000,00 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

BIZKAIA

## Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntza.

### Deskribapena

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntza.

### Hartzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalak.

### Funtsezko datuak

**Erakundea:** Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**Epea:** 2026/10/15

**Aurrekontua:** 1.200.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

ARABA

## Aurreikusi ezin diren egoeretan toki-erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzak

### Deskribapena

Premiazko ustekabeko gastuak eta larrialdiko obrak finantzatzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua.

### Hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kontzejuak.

### Funtsezko datuak

**Erakundea: Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila – ARABAKO FORU ALDUNDIA**

**Epea: 2026/12/31 edo aurrekontua agortu arte.**

**Aurrekontua: 300.000 €**



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EEE

## Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntzak

### Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia aurrezte eta efizientzia lortzea eta energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko, argitara eman da Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntza-programa hau.

### Hartzaileak

Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta eremu txikiagoko bestelako lurraldeko toki-erakundeak; udalerri-mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak, toki-araubideko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat; toki-erakunde horiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoak; udal-enpresa publikoak, baldin eta atal honetan aurreikusitako erakundeei horien kapital sozialean duten zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza % 50etik gorakoa bada; fundazioak, baldin eta fundazioaren patronoa toki-erakunde bat bada, edo haren patronatua, nagusiki, toki-erakundeko ordezkariez osatuta badago; partzuergoak eta mota guztietako gainerako erakunde instrumentalak, baldin eta nagusiki toki-kapital publikoaren partaidetza badute edo haien posizio nagusia toki-erakunde batena bada.

Funtsezko datuak

**Erakundea: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA-Eusko Jaurlaritza**

**Epea: 2028/10/17 edo aurrekontua agortu arte**

**Aurrekontua: 5.000.000 €**



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EEE

## Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzak

### Deskribapena

EAEn energia berriztagarri elektrikoen hedapena sustatze aldera, programa honen xedea da energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduketak egitea.

### Hartzaileak

Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

Funtsezko datuak

**Erakundea: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA-Eusko Jaurlaritza**

**Epea: 2026/09/30 edo aurrekontua agortu arte**

**Aurrekontua: 80.000.000 €**



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

BIZKAIA

## Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea sustatzeko dirulaguntzak

### Deskribapena

Dirulaguntzen xede izango dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalei edo udal horiek parte hartzen duten elkarteei laguntza teknikoa eta kanpoko aholkularitza ematea, baldin eta laguntza eta aholkularitza horien helburua bada 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasuneko programa eta ekimenetan proiektuak aurkeztea.

### Hartzaileak

Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalak; haien udal-erakunde autonomoak eta udal-enpresa publikoak; Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek parte hartzen duten hurrengo elkarteak: Bizkaiko mankomunitateak, Bizkaiko «Behargintzak» Enplegurako Laguntzarako Zentroak, Bizkaiko Federazioa eta Landa Garapeneko Elkarteak, Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategian aintzatetsitako Bizkaiko eskualdeko turismo-kudeaketako erakundeak (Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur eta Lea Artibai Fundazioa).

Funtsezko datuak

**Erakundea: Ogasun eta Finantza Saila –  
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

**Epea: 2026/10/31 (13:30ean) edo aurrekontua  
agortu arte**

**Aurrekontua: 60.000 €**



ZERBITZUA ETA KONTAKTUA



## Hurrengo zenbakira arte

Eskerrik asko Udal Aukerak-en hilabetekaria irakurtzeagatik. Gure taldeak hilero lan egiten du zure udalerrirako finantzaketa-aukera garrantzitsuenak eskaintzeko, azkar eta segurtasunez jarduteko beharrezko informazioarekin.

### Zuzeneko harremana

 [www.eudel.eus/udalaukerak](http://www.eudel.eus/udalaukerak)

 [eudel@eudel.eus](mailto:eudel@eudel.eus)

 944 23 15 00

 Ercilla kalea 13, 48009 Bilbo

### Udal Aukerak EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen zerbitzua da.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Buletin honetan baja emateko, idatzi adierazitako helbide elektronikora.

### Jarrai gaitzazu eta partekatu buletina

Partekatu buletina zure inguruko beste teknikari eta udal-arduradun batzuekin. Zenbat eta udal gehiagok eskuratu hemengo informazioa, orduan eta eragin handiagoa izango du lurraldean.



Eskaneatu kodea, deialdi eta fitxa eguneratuen atari nagusira sartzeko.



Harpidetza

Izena eman newsletterra jasotzeko.



## UDAL AUKERAK ZERBITZUA



### Zer da Udal Aukerak?

Udal Aukerak EUDDEL-en zerbitzua da, Euskadiko toki-erakundeei zuzendutako finantzaketa-aukerak identifikatu eta zabaltzera bideratua, eta Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako dirulaguntzen deialdiei eta finantzaketa-programei buruzko informazio eguneratua ematen du.

### Zer eskaintzen dugu?

EAEko toki-erakundeentzat garrantzitsuak diren finantzaketa-deialdiak aurkitzea eta sistematikoki biltzea.

#### Informazioa

Deialdi bakoitzaren funtsezko alderdiak laburbiltzen dituzten (hartzaileak, xedea, epeak eta baldintzak) informazio-fitxak, newsletterrak eta dokumentu-baliabideak egitea eta argitaratzea,

#### Zabalkundea

Deialdien biltegia aldizka eguneratzea eta informazio-komunikazioak bidaltzea, finantzaketa-aukerak errazago eskuratzeko.

